

Elebitasuna eta adimenaren garapena: ikerketa-datuak



Londoneko Unibertsitateko Goldsmiths-en webgunean eta Europako Batasuneko ikerkuntza webgunean agertutako ikerketa-aipamena:



“Ezaguna da Europako eleaniztasuna, batatsuneko 27 estatuetako biztanleen %50ak gutxienez bi hizkuntzatan mintzatzeko gai direlako. Goldsmiths, University of London-en egindako ikerketak zera ematen du aditzera: gutxienez bi hizkuntza ikasten duten hurrek ikasteko nortasuna indartzen eta euren garapen kognitiboa estimulatzen dutela”.

http://ec.europa.eu/research/headlines/news/article_07_04_10_en.html ;

<http://www.goldsmiths.ac.uk/press-releases/pressrelease.php?releaseID=537>

Prozedura:

Ikerlariak Londresko Tower Hamlets barrutiko 2, 4 eta 6 urteko eskola-haurrekin egin zuten ikerketa. Behatu zituzten haurrak euren ama-hizkuntza ikasten zuten bitartean gela amankomunetan. Ikerlari taldeak eskola amankomunetako irakasle, eskola nagusiko irakasle eta laguntzaile elebidunekin lan egin zuen lehen eskolako curriculumerako baliagarriak ziren ekintza elebidunak garatzeko.





Emaitzak:

Eskolan nabarmentzen ziren haurrek euren ama-hizkuntzan ere prestakuntza ona zuten. Gaitasun linguistiko handiagoa eta hizkuntza batetik bestera azkar itzultzeko gaitasuna zuten. Barrutiko datuen arabera, ama-hizkuntzako eskoletara zihoazen haurrek K1 eta K2 curriculum ofizialeko ebaluaziorako testak hobeto egiten zituzten. Ikerlariek azpimarratu zutenez, eskolako lan akademikoaren bitartez euren ama-hizkuntza lantzeko aukerarik ez zuten bigarren eta hirugarren belaunaldiko haurrek gaitasun hauek galtzeko arriskua zuten.


Ikerlarien iruzkinak*:


1. Bizitzan elebidunak diren hurrek curriculumera bi hizkuntzetatik hel daitezke; kontzeptu matematiko bat bengaleraz eta ingelesez ikasteak hizkuntzen artean transferitzen diren ideiak sakontzen ditu. Hurrek, badute baita olerkietako metaforak bengaleraz eta elkarrekikoa ingelesez nola egiten diren konparatzeko gaitasuna ere.

2. Garrantzizkoa da eskoletan ama-hizkuntza laguntzea curriculum nagusiarekin lotutako ikasketa-ekintzak bultzatuz. Elebitasunaren onurak ezagutzen dira eta garrantzizkoa da ekintza elebidunak eskolan bultzatzea.

*** Kenner; Gregory; Ruby; Al-Azami (2007)**

*** Financiado por Economic and social research council.**





Beste ikerketa batzuk (Lee, 1996; Bilingual Research Journal) erakusten dute elebitasunak ondorengo adimen gaitasunak estimulatzen dituela:

- **Gaitasun metalinguistikoa (hizkuntzari buruz hitz egitea eta kontzeptuak eratzea).**
- **Kontzeptuak eratzea (jeneralean kontzeptu abstraktuak).**
- **Arrazonamendu analogikoa (antzekotasunen bitartez arrazoitzeko gaitasuna).**

Familiantzako iruzkinak (I):

- **Garrantzizkoa da gure seme-alabak hizkuntza-testuinguru desberdinetan harremanak izan dezaten.**
- **Ez da ama-hizkuntza ahaztu behar eskolako hizkuntza ez denean. Datuen arabera, garrantzizkoa da kontzeptu konplexuak hizkuntza bietan ikastea.**
- **Eskola lanari laguntzeko gomendagarria litzateke material elebidunak sortzea.**



Familientzako iruzkinak (II):

- **Garrantzizkoa da jakitea, baita ere, haurrak ikasiko duen bigarren hizkuntza etxean ez bada ezagutzen ere, lehenengo hizkuntzaren garapenak bigarrena ikasten lagunduko duela.**
- **Gurasoek, hizkuntza giro motibatzailea sustatuz gain, eskolatik kanpo ere haurra ikasten ari den hizkuntza-esperientziak zabal ditzakete.**
- **Euskara eskolan ikasi behar den materia hutsa bihurtzeko arriskua dago, onarpen instrumentala izateaz gain komunikazio eta sozializazio tresna ere izan beharrean.**
- **Familian eta beste ingurune batzuetan presentzia txikiago duen hizkuntzak estimulu gehiago beharko ditu indar handiagoa duen hizkuntzaren aurrean**

